

KAPITALAREN MINTEGIA

3. SAIOA

HIRUGARREN ATALA

Bigarren Atalean aditzera eman denez, D-M formularekin balioak pairatzen duen metamorfosia ilustratu nahi da. Hala ere, balioak diruaren eta merkantziaren forma hartzearekin soilik ezin denez ulertu gainbalioaren sorrera, lan-indar merkantziaren salerosketa eta ondorengo kontsumoa merkantzia honen *erabilera-balioaren ikuspuntutik* aztertzen du Marx-ek. Izan ere, *balioaren ikuspuntuak* ez baitu askorako ematen.

Erabilera-balioaren ikuspuntutik lan-indar merkantzia kontsumitzeak *lan egitea* esan nahi du; alegia, lan prozesu bat burutzea, zeinak gainbalioa eratuko duen. Ildo honetatik, Hirugarren Atalari hasiera emango dio Marxek “Gainbalio absolutuaren ekoizpena” izenpean, ekoizpenaren esferara salto eginaz eraikuntza teorikoan.

V. KAPITULUA. LAN PROZESUA ETA BALORIZAZIO PROZESUA

V.I. LAN PROZESUA

Kapitulu honetan Marx *lan prozesua* esposatzen hasten da *balorizazio prozesuaren* momentu simple moduan. Berak diotenaren arabera, lehenengo lan prozesua forma sozial orotatik kanpo aztertzen hasi behar da.

Lan prozesuarekin gizarte-eredu guztiei amankomuna zaien *gizakiaren eta naturaren arteko metabolismoari* egiten dio erreferentzia. Gizakiak berezkoak zaizkion indar naturalak (burmuina, giharrak, hankak, eskuak) baliatzen ditu kanpoko-indar naturalen (“naturaleza exterior a él”) gaineko kontrola eta aldaketa gauzatzeko eta horrekin batera, bere burua ere iraultzen du. Bizitza organikoaren eta naturaren arteko harreman dialektikoan ezartzen du fokua, beraz.

Jarraian, lan prozesuaren momentuak deskribatzen ditu: *xede jakin batekin gauzaturiko aktibitatea, lan-objektua* eta *lan-bitartekoak*.

Lehenengo momentua “idealki” formulatzen du; alegia, lan bat burutu ahal izateko, lehenik berau gure garunean irudikatzen dugu (armiarma eta erlearen analogia), aktibitatearen xedea definitzen dugu (“actividad encaminada a un fin”) eta azkenik hura exekutatu. Horrela, kontzientziaren elementuari zentralitatea ematen dio.

Batek baino gehiagok interpretatu ahal du “izate sozialak kontzientzia determinatzen du” maximaren ukazioa eman daitekeela lehen momentu honetan. Bada, ideiak ere lan-harremanen parte direla adierazten du Marx-ek, nahiz eta mundu materialaren eta momentu idealaren artean “kanpokotasun”-a oro har beti ematen den. Horrela, gure ikuspegiak islatzen dituen oinarri materialean nola esku-hartu pentsatzen dugu, pentsaturikoa exekutatzen hasten gara eta bidenabar, geure izatea aldatzen goaz. Hala ere, kanpokotasun margen hori

desfasatuz gero, ideien eta materiaren arteko separazioa ematen da, ideologia burgesari ateak irekiz¹ eta aldaketa materialetarako (esku-hartze errealerako) inpotentzia garatuz.

Gainera, aditzera ematen du lanaren nolakotasunak gero eta gutxiago erakarri, orduan eta gehiago kontzentratuko direla gizakiaren indar fisiko eta izpiritualak lan prozesuaren gauzapenean. David Harvey-ren hitzetan Marx-ek pasarte honetan Fourier-en lanaren kontzepzioa aurkatzen du auto-diziplina aldarrikatuz kontzienteki definituriko helburuak lortzeko lan-modalitate gisara; izan ere, Fourier-ek lana konpromiso alai, atsegin eta erotikotzat hartzen bait zuen². Ildo berean, langileon borondatea lan prozesu baten helburuak exijitzen duen laztasunera subordinatzearen garrantzia azpimarratzen du.

Bigarrenik, lana gauzatzen den objektua ("*objeto de trabajo*") definitzen du: **lan-objektua**. Lana hasiera batean lur (ura barne) birjinaren gainean egin arren (objektu naturalaren gainean, adb: fruituen biltzea), *lehengaietan* jartzen du analisiaren pisua. Lehengaiak aurretiazko lan baten ondorio dira (adb: gas-a, petrolio, metalak, egurra, larru-azalak...) eta lehengai guztiak lan-objektu izan arren, lan-objektu guztiak ez dira lehengai kontsideratzen. Bada, eta *hirugarren* elementuan enfasia eginaz, harria lurzoruaren parte izan arren eta beraz lan-objektu, aldi berean **lan-bitarteko** bilakatzen da ekoizpen-funtzio ezberdinetarako: leuntzeko, mozteko, birrintzeko... Beraz, lan-bitartekoekin lehengaien antzera gertatzen da, objektu materialak bere horretan erabil daitezke lan-bitarteko moduan bai eta espezifikokoak fabrikatu.

Horrela, garai ekonomiko bakoitza baldintzatzen duena ez da izango *zer* ekoizten den baizik eta *nola* eta *zein bitartekorekin* egiten den lan. Honekin ez zaie soilik ekoizpen-bitarteko konbentzionalei erreferentzia egiten, baizik eta lan-bitarteko guztiei, hala nola: kanalak, errepideak, azpiegitura, logistika eta garraioa, etab.

Emaitza moduan, orokorrean lan-objektua eta lan-bitartekoek *ekoizpen bitartekoaren* kategoria osatuko dute eta lanak *lan produktiboarena* (beti ere lan prozesu sinplearen ikuspegitik begiratuta eta ez ikuspegi kapitalistatik).

Beraz, lan prozesuaren erpin kategorikoak aztertuta, Marxek aditzera ematen du prozesu honen **funtzioa** lan-objektu eta lan-bitartekoengandik ezberdina den (erabilera-balio ezberdina duen) *produktu bat ekoiztea* dela. Horrela, produktuak lan prozesuaren emaitza izatearekin batera, beste produktu batzuk ekoizteko bitartekoen (lehengaiak edota lan-bitartekoak) funtzioa bete dezakete, prozesu berri baten baldintza izatera pasaz.

Funtsean lan-prozesuaren ondorioz sortzen den *produktuak* erabilera balio ezberdinak ditu eta ondorioz, modu ezberdinetan *kontsumitu* daiteke. Ekoizpen prozesua, beraz, *kontsumo-prozesua* ere bada aldi berean, istantean gainera³. Kontsumoa bi modutako izan daiteke lan prozesu sinplearen ikuspuntutik:

- 1- Kontsumo indibiduala: produktua bizitza bitarteko bezala kontsumitzen da, lan-indarra birsortzeko medio moduan.
- 2- Kontsumo produktiboa: produktua lehengai eta lan-bitarteko gisan kontsumitzen da.

¹ David Harvey, *Guía de El Capital* de Marx, Libro Primero, Madril, Akal, 114. or.

² *Ibid.*, 115. or.

³ Karl Marx, *Elementos fundamentales para la crítica de la economía política* (Borrador) 1857-1858, *Grundrisse*, Madril, Siglo XXI, 10. or

Guztiarekin *prozesu-produktu* dialektika esposatzen da kapituluaren lehen zati honetan. Lana prozesu bat da eta honen bitartez gauza bat edo produktu bat sortzen da. Produktua erabil daiteke edo ez; produktuak lehenaldiko lana artikulatzen du (“trabajo pretérito”) edo hildako lana (“trabajo muerto”) eta ez du ezertarako balio lan biziak erabiltzen/kontsumitzen ez badu. Ideia hau lanaren eta jabetzaren arteko disoziazio bezala aurkezten du Marxek Grundrisse-etan, lan ez-objektibatuaren kontzepzio negatiboa (pobrezia absolutua) eta positiboa (aberastasun unibertsalaren potentzia) azalduz⁴. Enrique Dussel-ek esangura handiko dibulgazio-lana egiten du pasarte honi dagokionean, pisu filosofiko erabateko izkribua izaki, “ezereza” eta “kanpokotasun” kategoriei zentralitatea emanez⁵, zeinak gaian sakontzeko aukera ematen duen.

Kapituluaren lehen zati honetan baldintza sozial historikoetatik at aurkitzen den ekoizpen prozesuaren momentu abstraktu eta sinpleena ikusi dugu. Datorrenean lan prozesutik lan prozesu kapitalistara egiten da salto: *balorizazio prozesura*.

V.II. BALORIZAZIO PROZESUA

Baina lan-indarra ere, erabilera-balioa duen merkantzia moduan, lana egiterakoan kontsumitzen da; hau da, burgesiaren aginduetara buruturiko lan-prozesuan. Nola kontsumitzen den? Bada, kontratua gauzaturiko baldintzetan lan-indarra ekoizpen-bitartekoak kontsumitzera (erabiltzera) bideratuz. Izan ere, lan-indar merkantziaren erabilera-balioa lana egitean baitatza, 2. atalean ikusi dugun bezala. Hartaz, ekoizten den produktua ekoizpen-prozesua zuzendu duen kapitalistaren jabetza izatera pasako da osotasunean.

Pasarte honen bitartez Marxek jada lan edo ekoizpen prozesu kapitalistaren ezaugarri funtsezko bi aipatzen ditu: a) Burgesiaren agintea ekoizpen prozesuan. b) Burgesiaren ekoizkin totalaren jabe izatera pasako da.

Jarraian, eraikuntza logikoan pausoak ematen ditu *balioaren formazio-prozesua* esplikatzu ardaizariaren (“*hilandero*”) adibidetik tiraka. Honen arabera, kapitalistak ekoizpen bitartekoak eta lan-indar merkantzia erosten ditu balio dutena ordainduz, D-M ekuazioari jarraiki. Horrela, ekoizpen prozesua burutzen da kapitalistaren agindupean. Hala ere, *balioaren ikuspegitik* ezin da azaldu balorizazioa, izan ere, ekoizpen prozesuan ekoizpen bitartekoen eta lan-indarraren balioak batzen baitira eta batuketa honek ez baitu gainbaliorik ahalbidetzen. *Erabilera-balioaren ikuspegitik* ordea, kapitalistak zuzenduriko (“comandado”) prozesuan lan-indar merkantziaren erabilera-balioa kontsumituz **lana** lortzen da, langilea ekoizpen bitartekoak produktiboki kontsumitzera bideratuz. Lan honekin ekoizpen bitartekoen balioa azken produktura transferitzen da (osotasunean eta inmediateki *edo* partzialki eta progresiboki) eta lan-indar merkantziaren balioaren baliokidea eratzen da (“equivalente de valor de la mercancia FdT”) bai eta gainbalioa. Modu honetan *lan prozesu kapitalista* edo *ekoizpen prozesu kapitalista* edo *balorizazio prozesua* gauzatzen da. Guztiarekin, ekoizpen merkantziak ekoizpen bitartekoetatik transferitu zaion balioa, lan-indarraren balioaren baliokidea zein gainbalioa barnebiduko ditu.

⁴ *Ibid.*, 235-236. or

⁵ Enrique Dussel, La producción teórica de Marx, un comentario a los GRUNDRISSE, México, Siglo XXI, 137-143. or.

Era berean, balioaren formazio prozesutik (zirkulazioaren esferatik) balorizazio prozesura (ekoizpenaren esferara) dagoen saltoa ulertzeko *iraganeko lana* (“trabajo pretérito”) edo *hildako lana* (“trabajo muerto”) eta *lan bizia* kategoriak baliatzen ditu Marxek. Bada, ekoizpen bitartekoak, gorago aipatu moduan, lanaren produktu direnez, lan prozesu bat artikulatzen dute euren baitan. Belaunaldiz belaunaldi sorturiko jakintzak, teknika sofistikatuek, zientziak, lan-bitarteko dibertsoenak, lehengaiak erazteko teknikak, eraikinek... denek aurretiazko lan bat gordetzen dute: iraganeko lana. Lan-indarra ere, ekoitzi eta erreproduzitu egiten den heinean, lanaren ondorio da eta lan bizia gordetzen du potentzian. Kapitalistak lan-indarraren erabilera-balioa kontsumitzen duenean baina, *lan bizia iraganeko lanarekin* harremanean jartzen du. Modu honetan, ekoizpen bitartekoek barnebiltzen duten balioa produktura igarotzen da baina hau ez da horrela gertatzen lan-indar merkantziarekin; izan ere, beronen erabilera balioa kontsumitzerakoan *lan* gauzatzen da eta lan hau lan-indarra ekoizteko sozialki beharrezko den denboraz gaindik burutzen da. Hau da, *lan prozesua* lan-indarra erreproduzitzeko sozialki beharrezko den denboran (beharrezko lan-denboran) exekututzeaz gain, plus-denbora batean ere gauzatzen da. Ondorioz, beharrezko lan-denbora horretan langileak lan-indar merkantziaren balioaren baliokidea berrezartzen du, zeinak soldataren forman erabiliko duen kapitalistak; gainontzeko denboran *balio berria* edo *gainbalioa* sortzen du eta hau osotasunean gordeko du prozesuaren agintariak. Ez dago iraganeko lanaren transferentziarik lan-indar merkantziaren kontsumoan, beraz; balio berria baizik, lan-indar merkantziaren balioaren baliokide dena, baina beronen berdina izan gabe.

Berriro Grundrisse-etan euskarriz, hildako lanari lan objetibatua deituko dio Marxek, zeina diruan eta ekoizpen bitartekoetan objetibatzen den. Aldiz lan biziari objetibaturik aurkitzen ez den subjektibitatea deitzen dio: potentzian existitzen den lana. Dirua (hildako lan gisa) lan-indarrarekin salerosterakoan, soldata kategoriak gorputza hartzen duenean, iraganeko objektibitatekanpo subjektiboki existitzen zen lan-eza (“no-trabajo”) objetibatzeke baldintzak sortzen dira, subsuntzio kapitalistaren momentu ontologikoa ematen delarik horrela⁶.

Garrantzitsua da Kapitalaren V. Kapitulu hau Grundrisse-ekin osatzea, objektu-subjektu, negatibo-positibo eta ikuspuntuen dialektikarekin esposizio teorikoaren momentu *esentzial* hau gehiago fintzen laguntzen duelako⁷.

VI. KAPITULUA. KAPITAL KONSTANTEA ETA KAPITAL ALDAGARRIA

Kapitulu honetan aurrekoan azalduko balorizazio prozesuaren *no lakotasunean* sakontzen da. Alegia, balorizazio prozesuak gainbalioaren erazketan oinarrituriko lan prozesu gisara daukan ezaugarrietan barrentzen da autorea. Horretarako *kapital konstantea* eta *kapital aldagarria* kategoriak eraikitzen ditu.

Hain zuzen ere, dirua kapital gisa funtzionatzen hasten da ekoizpen bitartekoak eta lan-indarra erosi eta euren kontsumo produktiboa burutzen duenean burgesak balorizazio prozesu bidez. Ekoizpen bitartekoetan inbertitzen den diruari **KAPITAL KONSTANTEA** deitzen dio, ekoizpen bitartekoetan kristalizaturik dagoen balioa ekoitziriko merkantzian kontserbatzen duelako langileak lan prozesuan. Kontserbazio edo transferentzia hau, balioaren ikuspegitik,

⁶ *Ibid.*, 137. Or.

⁷ Roman Rosdolsky, génesis y estructura de El capital de Marx (estudios sobre los Grundrisse), México, Siglo XXI, 239. Or.

immateriala da; erabilera-balioaren ikuspegitik ordea, materiala izango da, batez ere lehengaien kasuan. Esaterako, kotoia (lehengaia) landuz josteko makinarekin kamiseta lortuko dugu. Kamiseta honetan kotoia aurkitzen da beste erabilera-balio batekin baina kotoi kantitate baten, josteko makinaren zati baten eta lan-jardunaldi baten balioa gordetzen dira. Ezberdina da beraz, transferentzia fisikoa eta balioaren zirkulazioa.

Zentzu horretan ekoizpen bitartekoek ez dute baliorik sortzen, ez baitute lan bizirik gordetzen eta gordetzen duten lan denbora transmititzera mugatzen baitira, bat-batean edo pixkanaka. Beraz magnitude konstante batez ari gara hizketan. Esaterako makinek euren balioa transferitzen dute ekoizteriko merkantziara. Adibidez, kamisetak josteko makina batek 15 urte irauten baditu, hamabost urte horietan ekoizte diren kamisetetara bideratuko du bere balioa, progresiboki. Aldiz, makinek ez dute gainbaliorik sortuko. Hau, noski, balioa elementu immateriala, soziala eta objektiboa den momentutik kalkulatu daiteke.

Beste alde batetik, lan-indarrean inbertitzen duen diruari eta ekoizpen prozesuaren elementu aktiboari **KAPITAL ALDAGARRIA** deitzen dio. Kapital aldagarririk gabe ez dago balorizaziorik eta ekoizpen bitartekoetan artikulaturiko hildako lana galdu egiten da zaharkitzeak edota matxurak bezalakoak ematen direnean. Alegia, desbalorizatu egiten dira hildako lanak eta lan biziak harremanik ez duten momentutik.

Kasu honetan kapitala ez da konstantea hain zuzen ere lan bizia delako lan-indar merkantziaren erabilera-balioa kontsumituz lortzen dena eta langileak sortzen dituen bere balioaren baliokidea zein gainbalioa aldagarriak direlako tokian tokiko eta garaian garaiko baldintzen arabera.

VII. KAPITULUA. GAINBALIO-TASA

Aurreko kapituluetan eraikitako kategoria teorikoak euren arteko harreman zehatzagoan aztertzen ditu gainbalio-tasaren kapitulu honetan.

Lehenengo kapital konstantearen eta kapital aldagarriaren arteko erlazio aztertzen hasten da lan-indarraren unitate batek erabil ditzakeen ekoizpen bitartekoak ebaluatuz lanaren produktibitatea zein den jakin ahal izateko.

Jarraian, gainbalio-tasarekin sartzten da berau gainbalioaren eta lan-indarraren balioaren arteko harreman gisara definituaz: p/v . Formula honekin lan-indarraren esplotazio-tasa edo gradua aztertu nahi du. Harreman hau gero eta altuagoa izan, orduan eta esplotazio maila handiagoa. Beraz, gainbalio-tasari esplotazio-tasa ere deitzen dio Marxek.

Ondoren, irabazi-tasa kategoria garatzen du. Irabazi-tasa gainbalioaren eta kapital konstante zein aldagarriaren arteko harremanean datza: $p/c+v$. Beraz, irabazi-tasa gainbalio-tasa baina txikiagoa izan ohi da kapital konstantea batzen delako ekuaziora. Irabazi-tasaren eta gainbalio-tasaren garrantzia Hirugarren Liburuan jorratzen du konplexutasun gradu altuagoan irabazi-tasaren joera berantiarra frogatuz balorizazio prozesuaren egiturazko ezaugarri bezala.

Hala ere, kapitulu honetan Marxentzat garrantzia daukana, eta horregatik zentratzen da horretan orobat, gainbalio-tasa da. Formula honekin langileak sorturiko gainbalioa eta bere lan-indarraren balioaren arteko ezberdintasuna kalkulatu da; edo beste modu batera esanda, beharrezko lan denboraren eta plus-lan denboraren arteko harremana. Arazoa izan ohi da ekoizteriko merkantziak berak ez duela esplotazio gradua aparientzian adierazten,

alegia, ez dela merkatuaren esferan adierazten eta beraz, merkatuaren geruzatik haratago joan behar dela kalkulu egokia egin ahal izateko.

Azkenik, Senior ekonomialariak lan-jardunaldiaren iraupena justifikatzeko erabiltzen dituen argumentuak ukatzen ditu eraiki berri duen gainbalio-tasaren kategoriaren bitartez. Agerian uzten du, modu horretan, aipatu ekonomialariak burgesiaren interesen alde egiten duen defentsa.